

# Liburuak

KRITIKA

## Bazoaz berarekin

Helduen literatura

Igor Estankona

GAZTELANIAZKO bide oparoaren ostean euskara etorria, sinplezia harrigarriarekin eta erraztasun itzelarekin gerturatzen gaitu Antonio Casado da Rochak sormenaren konplikaziora eta hizkuntza baten jabe egitearen abenturara. Liburuko lehen poeman kontatzen du nola Eduardo Chillidak erabaki zuen ezkerrekin marraztuko zuela, oharturik “gauzak sakon sakon egiteko bidea/ ixten ziola erraztasunak”. Hala ere, idazlearen ezker esku hori ez da ia nabaritzen. Obra bikain bat bakarrik ikusten da, behin aldamioguztiak desagerturik, estilizatua eta gogorra –“Eta gu, euskaldunak/ izateko abominazioaren/ desolazioa”–, estilizatua eta xamurra –“txori hauekin topo eginez/ gero ez dago ahazterikan...”–.

Metaliteraturaz eta arteaz gogoeta egiten duenean interesgarria, idazle kultu eta erreferentziaz betea, berriketa poetikoa berriketa normal eta gozo bihurtzeko abilezia erakutsi du “Donostian, baina Errenterian” jaioak. Orriz orri, leun-leun, irakurlea pentsamendu, ideia, beldur



*Esku ezkerrez.*  
Antonio Casado da Rocha.  
Utriusque Vasconiae.  
104 orrialde.  
15 euro.

eta zalantzen haiku luze eta intimo batetik daroa, oinarrian poesia mamitsua daukan gogoeta luze bat eskainiz, erriarantz eta jolaserantz egiten duena maiz.

Naturaz eta edertasunaz diharduenean sentsibilitate handia erakusten du. Deskripzioak gozamen hutsa dira, eta denbora bera ahazteraino daude findurik. Gainera, diskurtsoa ez da lausotzen, laster itzularazten gaitu eta lainoetatik poetak berak, elementu bortizki modernoek bitartez, informatikatik mailegatuak, egunkarietan aurkituak, teknikak ekarriak. Angel Errok hitzaurrean aurreratzen digun moduan, poeta hau “behazaila” da, “irazten duen idazlea”, edozein gauzari forma emateko gai. Horrela, bada, poesia txinatarraren bordatuekin zein diskurtso filosofiko gaurkotuaren kordel lodiekin, nortasunaz, euskalduntasunaz, bizitza modernoaz... jarduteko tonu orekatu bat kausitu du Casado da Rochak. Gaien zein espresio moldeen alderditik hain anitza den poemategi honen zementu-lana tonu horrek egiten du, hain zuzen.

Idazten ari den bitartean gozatzen ari dela nabari zaio, berezko arintasun eta oreka transmititzen ditu. Sentitu eta idaztearen arteko filtrorik ezak eta trebezia teknikoak astuna izan barik sakona den liburu bakan horietako bat sortu dute, gure gozamenerako. Kontrastearen bidez daki serio hitz egiten Casado da Rochak. Bene-benetako poeta da: “Atera nintzen/ txiza egitera.// Ikusi nuen/ ilargi horia”. ■



**INDOOR  
KARTING**

- Haurrentzat eta ezinduentzat egokitutako kart-ak
- Pista alokatzeko aukera
- Taldeentzako aktibitateak
- Deskontu bereziak

☎ 685 722 119

Iparaldeko autobidea, 433. irteera

Tolosa (Gipuzkoa)

[www.tolosaindoorkarting.com](http://www.tolosaindoorkarting.com)

